


ttipi-ttapa


1990eko Urtarrilak 18

30. zenbakia

dohain banatzen da



Negu erdian
eta hola



Sekulako merkealdiak
Zeuk ikus ezazu

Calzados BERA FLOR

Eztegara Pasealekua, 19 - BERA

NON-ZER

Horra! Horixe litzateke iñotia!
Eguneroko erritmoari astindu
eder-galantaren bat edo bi ema-
nez bizi gogoia erakusteko oka-
sioa.



Partaidetza ugaria Baztandarren
Biltzarrak antolatutako hama-
bortzaldian.



Mariano Izeta ttiki-ttikitatik
euskal kulturaren munduan sar-
tua ibili da buru belarri



Saran, Bertsularien eguna otsai-
laren 11an ospatuko da. Bertan
egonen dira Lopategi, Eguzkit-
ze, Lizaso, Arzallus, Ezpona,
Mendiburu eta Xanpun.

4. Beharrezko telefonoak.
5. Agenda.
6. Irakurleak mintzo.
7. Karriketan galdezka.
8. Prentsan agertua.
- 9/18. Herriz-herri: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Baztan, Zugarramurdi, Leitza, Goizueta, Sara.
19. Erreportaia. JUAINAS
20. Elkarrizketa. P. ASTIZ
22. Merkatu ttikia.
23. Kirolak..
25. Astrologia. F. ALTZUGU REN
26. Irakaskuntza. P. Petrirena
27. Denborapasa. ENBIDO

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA. Tfnoa: 63 11 88

Laguntzaileak:

Bortzirietako Euskara Mankomu-
nitatea

Nafarroako Gobernua

Erredakzio arduraduna:

Josemanuel Irigoien

Publizitate arduraduna:

Miren Karmele Tolosa

Erredakzio taldea:

Juainas Paul Arzak, Patxi Larre-
txea, Pello Astiz

Ale honetan parte hartu dute:

Roman Harribilaga, Oskar Txope-
rena, Pello Apezetxea, Jon Larre-
txea, Patxi Petrirena, Txema Alda-

be, Iban Isasi, Juainas, Koro Etxe-
berria, Koro Irazoki, Pello Astiz,
Mikel Ibarrola, Mattari Altzuarte,
Enbido.

Inprimategia: Antza (Donostia)

Copyright: ttipi-ttapa

Tirada: 1.500 ale

Lege-Gordailua: NA-1324/85

ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere
gain hartzen, aldizkarian adierazi-
tako erranen eta eritzien erantzun-
kizunik.

SOS Nafarroa	088
OSASUN ZENTRUAK	
Elizondo	580235
Doneztebe	594300
Lesaka	637336
Leitza	510573
KONTSULTAK	
Arizkun	587039
Gartzain	580451
Oronotz-Mugaire	592024
Ituren	594183
Sunbilla.....	594283
Goizueta	514067
Igantzi	637755
Arantza	634131
Bera.....	630036
Ettxalar.....	635105
Urdazubi.....	599130
ANBULATORIOAK	
Irun	630264/621106
OSPITALEAK	
Irungo ospitalea	614444
Nafarroako ospitalea	251500
SSko urgentzi zerbitzua	246750
Virgen del Camino	
erresidentzia	262700
Gurutze Gorria	226404
ANBULANTZIAK	
Oitz	594242/594342
DYA	
Lesaka	637861
FUNERARIA	
Lesaka.....	637404
SUHILTZAILEAK	
Oronotz-Mugaire	592044
GARRAIOAK	
Bidasotarra	630279
Baztanesa	580129
Leizaran	515018
HIRUGARRENADINARENDAKO	
ZENTRUAK:	
Elizondo	580730
Lesaka	637154
Bera	630104
ABERIAK:	
Iberduero	594335/594336

Gauza bat argitu nahi genuke. Hau da; zure etxean *ttipi-ttapa* bat baino gehiago hartu badituzue, batek baino gehiagok horrela eskatu duzelako, eta uste baduzue ale bakar batekin nahikoa duzuela, eskertuko genizuen guri jakinaraztea.

Bertzalde, zure lagunen bat hartu nahian baldin badago, oraindik izenik eman ez duelako, jakin ezazu nahikoa dela 22. orrialdean dagoen txartela betetzea eta guri igortzea. Eskerrik asko.

Gurutzegramaren soluzioa

Aurreko alean argitaratu genuen gurutzegramaren soluzioa eskeintzen dizuegu hemen.

Seguro, bat baino
gehiagok berehala
asmatu izanen zuela.

Dena den, bakarren
bat zintzilik gelditu
bazen nunbait, orain-
txe du zalantzak
argitzeko aukera.



		L	E	Z	Radamen somboko kimukaa			
	M	E	N	A	V	R		
		G	O	Z	E	N		
	L	A	R	U	N	I		
	A	Grapateko erabireko sho piza	T	I	K	Bokala		
T	I	G	R	E	R	O	N	
	A	R	A	U	B	E	L	A
E	K	A	I	T	Z	A	O	R
	O	P	X	A	K	E	A	
A	H	A	L	A	T	E		
	A	A	K	E	R	S	S	
E	R	A	K	U	R	I	A	
	R	A	R	A	R	B	I	
D	I	T	T	U	L	E	O	
	A	T	X	U	R	I	A	

⦿ *Hiri-Hara* eremuko mendien izenak.

1994, 1995, 1996, 1997, 1998, 1999, 2000, 2001, 2002, 2003, 2004, 2005, 2006, 2007, 2008, 2009, 2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020, 2021, 2022, 2023, 2024, 2025, 2026, 2027, 2028, 2029, 2030, 2031, 2032, 2033, 2034, 2035, 2036, 2037, 2038, 2039, 2040, 2041, 2042, 2043, 2044, 2045, 2046, 2047, 2048, 2049, 2050, 2051, 2052, 2053, 2054, 2055, 2056, 2057, 2058, 2059, 2060, 2061, 2062, 2063, 2064, 2065, 2066, 2067, 2068, 2069, 2070, 2071, 2072, 2073, 2074, 2075, 2076, 2077, 2078, 2079, 2080, 2081, 2082, 2083, 2084, 2085, 2086, 2087, 2088, 2089, 2090, 2091, 2092, 2093, 2094, 2095, 2096, 2097, 2098, 2099, 2100, 2101, 2102, 2103, 2104, 2105, 2106, 2107, 2108, 2109, 2110, 2111, 2112, 2113, 2114, 2115, 2116, 2117, 2118, 2119, 2120, 2121, 2122, 2123, 2124, 2125, 2126, 2127, 2128, 2129, 2130, 2131, 2132, 2133, 2134, 2135, 2136, 2137, 2138, 2139, 2140, 2141, 2142, 2143, 2144, 2145, 2146, 2147, 2148, 2149, 2150, 2151, 2152, 2153, 2154, 2155, 2156, 2157, 2158, 2159, 2160, 2161, 2162, 2163, 2164, 2165, 2166, 2167, 2168, 2169, 2170, 2171, 2172, 2173, 2174, 2175, 2176, 2177, 2178, 2179, 2180, 2181, 2182, 2183, 2184, 2185, 2186, 2187, 2188, 2189, 2190, 2191, 2192, 2193, 2194, 2195, 2196, 2197, 2198, 2199, 2200, 2201, 2202, 2203, 2204, 2205, 2206, 2207, 2208, 2209, 2210, 2211, 2212, 2213, 2214, 2215, 2216, 2217, 2218, 2219, 2220, 2221, 2222, 2223, 2224, 2225, 2226, 2227, 2228, 2229, 2230, 2231, 2232, 2233, 2234, 2235, 2236, 2237, 2238, 2239, 2240, 2241, 2242, 2243, 2244, 2245, 2246, 2247, 2248, 2249, 2250, 2251, 2252, 2253, 2254, 2255, 2256, 2257, 2258, 2259, 2260, 2261, 2262, 2263, 2264, 2265, 2266, 2267, 2268, 2269, 2270, 2271, 2272, 2273, 2274, 2275, 2276, 2277, 2278, 2279, 2280, 2281, 2282, 2283, 2284, 2285, 2286, 2287, 2288, 2289, 2290, 2291, 2292, 2293, 2294, 2295, 2296, 2297, 2298, 2299, 2300, 2301, 2302, 2303, 2304, 2305, 2306, 2307, 2308, 2309, 2310, 2311, 2312, 2313, 2314, 2315, 2316, 2317, 2318, 2319, 2320, 2321, 2322, 2323, 2324, 2325, 2326, 2327, 2328, 2329, 2330, 2331, 2332, 2333, 2334, 2335, 2336, 2337, 2338, 2339, 2340, 2341, 2342, 2343, 2344, 2345, 2346, 2347, 2348, 2349, 2350, 2351, 2352, 2353, 2354, 2355, 2356, 2357, 2358, 2359, 2360, 2361, 2362, 2363, 2364, 2365, 2366, 2367, 2368, 2369, 2370, 2371, 2372, 2373, 2374, 2375, 2376, 2377, 2378, 2379, 2380, 2381, 2382, 2383, 2384, 2385, 2386, 2387, 2388, 2389, 2390, 2391, 2392, 2393, 2394, 2395, 2396, 2397, 2398, 2399, 2400, 2401, 2402, 2403, 2404, 2405, 2406, 2407, 2408, 2409, 2410, 2411, 2412, 2413, 2414, 2415, 2416, 2417, 2418, 2419, 2420, 2421, 2422, 2423, 2424, 2425, 2426, 2427, 2428, 2429, 2430, 2431, 2432, 2433, 2434, 2435, 2436, 2437, 2438, 2439, 2440, 2441, 2442, 2443, 2444, 2445, 2446, 2447, 2448, 2449, 2450, 2451, 2452, 2453, 2454, 2455, 2456, 2457, 2458, 2459, 2460, 2461, 2462, 2463, 2464, 2465, 2466, 2467, 2468, 2469, 2470, 2471, 2472, 2473, 2474, 2475, 2476, 2477, 2478, 2479, 2480, 2481, 2482, 2483, 2484, 2485, 2486, 2487, 2488, 2489, 2490, 2491, 2492, 2493, 2494, 2495, 2496, 2497, 2498, 2499, 2500, 2501, 2502, 2503, 2504, 2505, 2506, 2507, 2508, 2509, 2510, 2511, 2512, 2513, 2514, 2515, 2516, 2517, 2518, 2519, 2520, 2521, 2522, 2523, 2524, 2525, 2526, 2527, 2528, 2529, 2530, 2531, 2532, 2533, 2534, 2535, 2536, 2537, 2538, 2539, 2540, 2541, 2542, 2543, 2544, 2545, 2546, 2547, 2548, 2549, 2550, 2551, 2552, 2553, 2554, 2555, 2556, 2557, 2558, 2559, 2560, 2561, 2562, 2563, 2564, 2565, 2566, 2567, 2568, 2569, 2570, 2571, 2572, 2573, 2574, 2575, 2576, 2577, 2578, 2579, 2580, 2581, 2582, 2583, 2584, 2585, 2586, 2587, 2588, 2589, 2590, 2591, 2592, 2593, 2594, 2595, 2596, 2597, 2598, 2599, 2600, 2601, 2602, 2603, 2604, 2605, 2606, 2607, 2608, 2609, 2610, 2611, 2612, 2613, 2614, 2615, 2616, 2617, 2618, 2619, 2620, 2621, 2622, 2623, 2624, 2625, 2626, 2627, 2628, 2629, 2630, 2631, 2632, 2633, 2634, 2635, 2636, 2637, 2638, 2639, 2640, 2641, 2642, 2643, 2644, 2645, 2646, 2647, 2648, 2649, 2650, 2651, 2652, 2653, 2654, 2655, 2656, 2657, 2658, 2659, 2660, 2661, 2662, 2663, 2664, 2665, 2666, 2667, 2668, 2669, 2670, 2671, 2672, 2673, 2674, 2675, 26

Euskara ikastaroak

Hobetzeko

Astəcn 4 ordu (Bi egunez)

Astean 4 ordu (Larunbatez)

Astean 8 ordu (Lau egunez)

Astean 8 ordu (Lau egunez 2 Hilabetetan)

Ikasteko

Astean 8 ordu (Lau egunez)



ikastari

Leitza 61 07 76 - Malerreka 59 46 87 - Bortziriak 63 77 96

19 ORTZIRALA

-Etxalar, 19,00etan Euskara Batzordearen bilera.

-Doneztebe, 20,00etan, Doneztebeko Herriko Etxean Udal bilera. Gaia.- Euskara Batzorde baten eratze-proposamena Malerreka osorako.

21 IGANDEA

-Bera, eguerdiko 12,00etan, Jamotenea egoitzan, "Bera" eta "Gure Txokoa" ipuin lehiaketetan eta "Text Beratarra" kultur lehiaketan irabazle geratu direnen artean sari banaketa.

-Elizondo, arratsaldeko 18,00etan, "Ke arteko egunak" filmearen proiektzioa. Erlategi zineman.

25 ORTZEGUNA

-Lesaka, arratsaldeko 18,00etan, Borziritako Euskara Mankomunitatearen "Aholkularitza Batzordea"ren bilera. Gaia.- Urte honetako plangintza eta aurrekontuak.

27 LARUNBATA

- Ituren, herri afaria. Gauez musika izanen da.

28 IGANDEA

-Ituren, Iñauterien hasiera. Arratsaldean musika izanen da.

29 ASTELEHENA

-Ituren, Iñauteriak. 13,00etan Zubietarrak eta Aurtiztarrak Iturenera joanen dira. Arratsaldean musika.

30 ASTEARTEA

-Zubieta, Iñotiak. 13,00etan Iturendarrak eta Aurtiztarrak Zubietara joanen dira. Arratsaldean musika.

-Lesaka. Arratsaldeko 18,00etan Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen "Batzorde Erabakikorra"ren bilera.

DEIALDIK

Kirol taldeak urtarrilaren 19a baino lehenago, 1989 urteko gastuak justifikatu beharko dituzte.

IKASTAROAK

-Bera. Urtarrilaren 23a karate eta iraupen gimnasia ikastaroak.

GOARDIAKO FARMAZIA

-Urtarrilaren 20-21ean Ituren, F. Iturralde (Elizondo), Bera.

-Urtarrilaren 27-28an, F. Lezaun (Elizondo), Arantza.

ETXEGARAI
ELEKTROGAILUAK
BIDEO KLUBA

Eztegarra 4, Tfnoa: 630570 BERA

*Telebistak eta Bideoak
Antena kolektiboak eta
banakakoak
Konponketa tailerra*
LEGARRA

 PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarra 9, Tfnoa: 637030 LESAKA


MALDAERREKA S.A.
EHORZKETA ZERBITZUAK

Bittiria kalea -Tfnoa: 637404- LESAKA

ERLOJU ETA BITXI DENDAK

 Legia 1, BERA Tfnoa: 630751 Merkatua k. DONEZTEBE
KONPONKETAK EGITEN DIRA

Zer ote dago lehenago, langileak lana nahi duenean uzteko daukan eskubidea ala haurrek heziketa on baterako duten eskubidea?

Orain arte irakasleen harat-honatakin gutti bagenuen, orain Igantzin gertatu dena ez da nolanahikoa.

Hitz bitan errateko, irakasle bat, aurtan etorria gainera, haurretaz eguberri aintzinean despeditu eta bertze inori, ez gurasoei, ez Eskola Kontseiluari eta ezta bere lankideei deus erran gabe bere lana uztea erabaki du eta alde egin du. Jendea harrituta gelditu da, dudarik gabe, holarik ez baita inoiz gertatu.

Irakasle honek eskubide guztiak zituen egin duena egiteko baina, ez zaigu gauza bat bertzerik ateratzen gure barrutik: Ez dago eskubiderik horretarako. Legalki jokatu du baina ez etikoki.

Ez dut bertze herrietako egoera sobera ezagutzen baina Igantzin azken 10 urteotan pasatu diren irakasleak kontatzea ez da batere erraza. Ikusia dago, gainera etortzen diren irakasle gehienek, salbuespenak

salbuespen, bertze leku bat dutela burutan, bere helburua Iruñea edo inguruko herri bat dela. Guzti honengatik galdera hauexek egingo nizkioke arazo honen arduradunari:

-Noiz emanen zaie posibilitatea Igantzin magisteritza egin duten gazteei bertan lan egin dezaten (plantilla fijo xamar bat lortzeko)?

-Noiz bukatu behar ote du plantilla mugimendu bukaezin honek?

-Herri ttiki hauek izan behar ote dute beti esperimentatzeko balio behar dutenak?

OSKAR TXOPERENA

Kritika ttiki bat

Kaixo ttipi-ttapako lagunok: Irakurleak mintzo deituriko sail honetan argitaratzea nahi nuke kritikatzko ttiki hau: Aurreko ttipi-ttapa, batzutan, edukiaren aldetik nahiko totxoa gertatzen zitzaidan baina, presentazio eta paperaren kalitatea hobea zituen. Halere, oraingo hau irakurtzeko aisa errazagoa eta atseginagoa dela uste dut.

GOTZONE MENDIZABAL

Sail honetan agertzeko bidali nahi dituzuen gutunak, makinaz idatzita-ko 30 lerro baino gehiago ezin dezakete izan. Kartak, izen-deituraz eta karneta zenbakiaz izenpetuak bidaliko dira. Dena den zuen datu horiek agertzerik ez baduzue nahi, ezizen edo izen-goitiz argitaratuko genuke.



B RADIO BIDASOA

SUKALDE ALTZARIAK

Legia, 42 Tfnoa: 630377 BERA

TELEBISTAK
BIDEOAK
ELEKTROGAILUAK

SALMENTA ETA KONPONKETAK

OSKORRI

LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

ttipi-ttapa

63 11 88

Iñaki Perurenak marka berria ezarri du 113 kiloko harria altxatuz. Ba al duzu horren berririk? Zer iduritzen zaizu?

Donezteben egina



Ezekiel Santesteban, 60 urteko Zubietarra eta jubilatua.

Badakit bai, telebistan ikusi dut. Ba, seguraski gehiago altxatuko du oraindik baina, horrek ere izanen du topea.

Isabel Ibarrola, 23 urtekoa, Doneztebekoa eta landidez perito agrikola.

Bai, entzun dut. Gehiegi iduritzen zait. Ez da gauza normala. Beharbada, oraindik gehiago ere altxatuko du.




Trinidad Vertiz, Donezteben bizi dena eta lanbidez etxekoandrea.

Bai erran didate. Pisu haundia da hori. Ez dakit, horrela segitzen badu lehertuko da egunen batean.

Jesus Irazoki, 20 urteko Sunbildarra eta lanbidez langilea.

Bai, adittu dut etxean. Niri ongi iduritzen zait. Oraindik gehio altxatuko duela uste dut. Zenbat, ez dakit!



GOIZUETA KIROLAK

Kirolak
Mendi Artikuluak

Beheko Plaza, 10 LESAKA



★ **KIXKUR** ★
ILEAPAINDEGIA

Bittiria Tfnoa: 637429 LESAKA

GAI A

Hilean behin mediku naturistarekin kontsulta
Arretxea, 32 Tfnoa: 637466 LESAKA

OSASUN-DENDA
BELARRAK
DIETETIKA
EDERGAIK



Abenduko suteak direla eta


NAVARRA HOY

(1989-12-28)

(...) Nafarroako Gobernuko Zuzendaritza eta Barne Kontseilari den Aladino Colin jaunak, Zuzendaritza eta Barne Komisioaren aintzinean suak egindako kalteen xehetasunak agertu zituen:

(...) denetara 2.781 hektarea izan ziren kaltetuak suertatu zirenak, hauetatik %28a larre soila; %26,3a arboladun larrea; %5a bertako zuhaitzak eta %37,5a pinadiak (...)

(...) Suak eragindako eremu osotik 1.314 hektarea Bidasoa-Berroaran eskualdean izan dira Kokoriko mendian 183 hektarea, Igantziko udalerrian 633 hektarea, Etxalar-koan 392, Lesakakoan 78, Arantzakoan 13 eta Beran 168 hektarea. (...)



Depuradora egin artean, Oronoztarak, ur zikina erreka botatzeagatik ordaintzen den zergaren kontra agertu dira.



MALDAERREKA S.A.

«La Suiza» Aseguro
mota guztiak

Bittiria kalea - Tfnoa: 637404- LESAKA

GOYA

JOSTAILUAK
JANTZIGINTZA
OPARIAK
BURDIN TRESNERIA

Altzate, 5 Tfnoa: 630083 BERA



Gozotegia - Ostaturia

Eztegara 8 - Tfnoa. 63 02 54
BERA

ttipi-ttapa

63 11 88



KIROLAK ZELA

Altzate 6 - Tfnoa. 63 05 98
BERA

Laila

MUSIKA DENDA

ESKEINTZA BEREZIAK
Gitarak, Baxuak eta anplifikadoreak
San Esteban 37 Tfnoa: 631059 BERA

BEKO-ERROTA

Lore eta landareak


Frain auzoa Tfnoa: 637826
LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Behoko Plaza 8, LESAKA

Suhiltzaile parke bat eraiki asmotan dabil Udala



Aparkaleku honetan egin nahi da suhiltzaileen parkea

ROMAN HARRIBILAGA

Iragan abenduaren 26an burututako ez ohizko osoko bilkuran hartutako erabakien artean, Udalbatzak herri mailako suhiltzaile parke tiki bat eraikitzeke asmoa azaldu zuen. Hori dela eta, saioan zehar, alkateak gaiak aurkeztutako txosten baten edukia eztabaiatua izan zeh.

Era honetan, eta Udalbatzaren eritziz *"hagitz beharrezkoa dela ikusirik, Bera udalerriak azkenaldian jasan izan dituen suteen ondoren batez ere"*, aipatu parkea Aduanatik gertu kokaturik eta gaur egun kotxe aparkalekurako erabiltzen den udal jabegoko zabalgunean eraikiko litzateke.

Egitasmo hau egin ahal izan dadin 2.000.000 pza. inguruko aurrekontua atundu beharko litzateke; horretarako, parkearen eraikuntzaren ordainketarako, alegia, dirulaguntza lortu asmoz, Udalak Iruñeko Gobernuaren aurrean

zembait bitarteko lan burutzen hastea ere erabaki zuen. Aldiberean, aipagarri da Udalak su itzalketa zereginetarako dagoeneko milioi bateko dirutzaz materiale eta tresneria erosia duela.

El Salvador-ekiko elkartasun eta laguntza

Adierazitako bilkuran ere, Euskal Herrian diharduen nazioarteko Askapena izakundeak aurkeztutako proposamena onartu zuen aho batez Udalbatzak.

Akordio honen arabera, eta *"Ertamerikako El Salvador lurraldeko egoera larria eta bertan ematen ari diren hilketa izugarriak"* kontutan hartuz, Udalbatzak *"su-etena lortu ahal izateko ekimenak eskatu, baita gogorkeriaren gelditze, giza eskubideekiko begirunea eta guzti hori ahalgarri bihurtu dadin laguntza neurriak har daitezen Erakundeei gonbida luzatu"* erabaki zuen, 7.000 pezetatako dirulaguntza emanez.

■ Dantza ikastaroa mutiko eta gizonezko helduentzat

Gure Txokoa Elkarteko Dantza Sailak euskal dantza herrikoien ikastaro baten hasiera iragarri du. Ikastaro hau gutienez sei urteak beteak dituzten mutikoei zuzendua dago, gizonezko helduek ere nahi badute parte har dezaketarik. Horretarako, datorren larunbatean, urtarrilak 13, Gure Txokoa Elkarteko ki-deek eztegarara frontoiaren ondoan erabiltzen duten egoitzan azaldu beharko dute, eguerdiko 12etatik arratsaldeko ordu batetara arte. Dantzen irakaskuntza Gure Txokoako irakasleek emana izanen da.

■ Beratar gaztea motor istripuz zauritua

Joseba Martikorena Danboriena, 16 urteko beratar gaztea, iragan 1989ko abenduaren 31an Lesaka udalerrian kokaturik Isastrin mendian izandako motor istripuan zauriturik geratu zen.

Istripua, eguerdiko 12,15ak inguru zirenean, Joseba mendian behera eta bertze Lesakar gazte bat gorantz zihoaztenean motorrek elkar jo zutenean gertatu zen. Ondorioz, beratarrak min hartu zuen ezker zangoko tibia eta perone hezurren haustura irekia eta belaunean zenbait zauri diagnostikatu zitzaizkionez. Lesakakoa berriz kalterik gabe suertatu zen. Zauritua DYAK bildu eta Lesakan duen egoitzako anbulantzian Donostiako poliklinikara eraman zuen, bertan geratuz.

San Antoneko erromeria

M.K.T.

Urtero bezala ohiturari jarrituz, aurten ere San Antoneko erromeria ospatuko da. San Anton eguna asteazkena denez, urtarilak 14ean eta 21ean, hau da aintzineko eta gibealeko igandetan izanen da ospakizuna.

San Antoneko basaeliza 1650. urtearen inguruan eraikitakoa dugu. Nondik datorren ospakizun honen sorrera arrunt garbi ez badago ere, dirudienez inguru honetan ganadu tratu aunitz izaten ziren Oiartzuar, Irundar eta Lesakarren artean. San Anton abereen zaindaria dugu eta seguruenik hortik etorriko da gaur egungo ospakizun hau.

Aurten ere ehundaka lagun oinez nahiz kotxez hurbilduko dira, garai batetan baserritarrek eta gaur egun edozein eratako jendearengana zabaldu den zita honetara.

Auzokoek, egun horietako musika ordaintzeko eskaria egin zuten Herriko Etxean. 15.000 pezetatako diru laguntza onartu zen.

Biurrana eta Auzoberriko bideak aurten konponduko dira

Hirurteko plangintzaren barnean Biurrana eta Auzoberriko bideen proiektua onartu du Udalak, 17.693.082 eta 15.204.791 pezetatako aurrekontuekin. Eraberean obra hauen kontratazioa egiteko klausulak eta adjudikaziorako konkurtsoa onartu ziren, eskeintzak egiteko epea urtarilaren 26an bukatuko delarik.

Auzoberriko bidearen proiektuan Nafarroako Gobernuak denera 12.581.699 pezetatako subentzioa emanen luke eta udalak gainarako 2.379.284 pztak. Biurrana bidean berriz, Nafarroako Gobernuaren gain aurrekontuaren 11.872.058 pztak eta udalak 5.821.024.



Goitarrak inauterietan

■ Partikularrek zenbait tokitan herri bideak itxi

Lesakatik San Antonera eta Igantzitik Salbatoreko baselizarara doazen bideetan ataka batzu daude. Bide horiek erabiltzen dituztenak, beraien kexa azaldu dute Herriko Etxean. Azkeneko plenoan, bideak itxi dituztenei ataka horiek kentzeko agindua onartu zen.

■ Zinegotzi berria Udalbatzan

Juan Mari Etxeberria Tapiak (HB) bere zinegotzi kredentziala alkateari erakutsi ondoren, Udalbatzeko partaide izanen da.

■ Ur arazoak

Ur eskasia dela eta proba bat egin da. Depositoa betetzeko ordu batzutan ura kendu dute. Honek ez du ezer konpondu, nahiz eta depositoa bete ordu hoietan, gero, ireki bezain abudo, hustu egiten da.

Orain bertze proba berri bat egiten ari dira. Hodi zaharrari berria konektatu. Halere, martxan jartzeko egun batzu behar izanen dira.

Bandoa: Uraren kalitatea behar den bezain ona ez denez, ura egosi egin behar da.

■ Goitarren errifa

Goitarrak dantza taldeak Iñautetako gastuak ordaintzeko, hau da, beraiekin baserriz baseri ibiltzen den trikitixa eta bertzelako gastuak ordaintzeko, errifa bat atera dute.

Baserrietako bideetan hobekuntza haundia

PELLO APEZETXEA

Aintzinerapausu haundia eman da azkenaldian baserrietako bideetan: 19 kilometro breaztatu dira, malda haundienetan zati batzu zementatu direlarik. Burutu den moldaketa horrekin, baserri gehienentzat bideetako ibilera galanki erraztu eta erosotu da. Eskerrak, bai, Hirurteko Planean Diputazioak markatutako dirutza haunditu den. Diputazioak emanaz gain Estatutik etorri diren 14 milioiei esker gauzatu ahal izan baita Lakain-Orainbeta eta Gorosurretako breaztaketa. 73,5 milioi izan dira denetara gastatu direnak.



Badira, bai, bidea edota bide zatia breaztatu gabe gelditu zaien zenbait baserri, zeinak Hirurteko Planean ez baitziren sartu. Dena den, aukera berria eskeiniko zaie horiei ere, hurrengo planean sartzekoa, alegia. Heldu den hilabetearen izena eman ahal izango dute, breaztatu nahia adieraziz Herriko Etxean, beraiekin proiektu berria eginen delarik. Horrela prest geldituko da, 1991-93ko plazoan burutu dadin.

■ Su emailatzat akusatuak

Suteak ustegabeko ondorioak ere ekarri ditu. Iruñetik etorritako gizonak ibili omen dira herritar batzuri galdeketa egiten. Zer dela-ta? Sute egunetan su ematen aritu ote diren eta nola. Iduri duenez, Iruñeko auzitegira salakuntza-
ren bat ailegatu da, herritar hauek su-emailatzat akusatu. Gai arriskutsua egitan hauxe! Norbaitek zioen bezala, *la-guntzera joan eta gero kontu hartu. Horrela jokatzuz, jende gehiago joanen da hurrengoan su itzaltzera?* Su eman seguro eman zuela batek baino gehiagok. Baina kalte egiteagatik? Edo eta kontra egiteko asmoz, horrela suari bidea moz ziezaion? Dena den, epaileak edo juezak lehenbait lehen argituko ahal du aferra.

IGANTZI

Hilbeltzaren 8an Nafarroako Gobernuko Mendi Sailakoekin bilera egin zen

OSKAR TXOPERENA

Azkeneko suteek egindako kalteekin jarraituz, bilera garrantzitsua izan zen joan den hilbeltzaren 8an. Alde batetik Nafarroako Gobernuko Mendi Saileko zuzendari nagusia, Jose M. Gofii eta bere saileko bertz zenbait partaide eta bertzetik, Igantziako Udaleko Alkatea eta zenbait zinegotzi. Lehendabizi erretako mendiei ikustaldi bat egin zitzaion.

Anyon buelta bat eman ondoren garbi gelditu zen han dena bota beharra zegoela. Pinua igartzen hasia dago jadanik eta ahalik eta abudoena bo-

tatzea beharrezkoa ikusi zen. Pinu haundiaz aparte orain dela 5 urte, 1984ean hain zuzen, egindako plantazio guztia erre da; eta honetaz aparte erreka ondoan zeuden platano, al-tza..., denak ere erre dira.

Ondotik Fraingo pinadira joan ziren eta suak han egindako kalteak aztertu ziren. Erditsua izanen da gutti gora-behera erretakoa eta seguraski bota egin beharko da.

Irisarrira ez zegoen joaterik, Labianok ongi ezagutzen baitzuen han erre den plantazioa, *abeto douglsi* Nafarroako Gobernuarekin batera landatutakoa hain zuzen.

Guzti hau ikusita, hauexek izan ziren Nafarroako Gobernuak egindako proposamenak:

- 1- Erretako pinadi guztiak markatu (Anyo, Frain, Larritz-gain eta Irisarrikoak). Nafarroako Gobernuko Mendi Sailekoekin hilbeltzaren 15ean, gutti gora-behera, hasiko dituzte markatze lanak.
- 2- Markatutako materialearekin gestio serio bat eraman, ahalik eta hobekien saltzeko. Honetarako, beren bitartekotza eskeini zuten, kontratistekin tratatu on batzu lortzeko.

- 3- Datozen 4 urtetan zehar, eta erretako mendi guztiak atera ondoren, terreno guztiak plantatu; honetarako proiektu zabal bat prestatuko delarik.
- 4- Hasiera gisa, aurtengo neguan, Narciso Irigoienek atera berri duen pinadigia plantatu, Zeru-metako parean hain zuzen. Bertako haritz eta haritz amerikanoez beteko da terreno hau, 10 hektarea ingurukoa.

Bide hau behar den bezala jarraitzen bada, zerbait molda liteke oraintxe dugun desastre hau.

Mus eta partxis txalpelketa Biltokin

Azken urte hauetan bezala mus eta partxis txalpelketa antolatu du Biltoki Elkarteak.

Harrera ezin hobeia izan du orain arte txalpelketa honek eta arrakastatsua izan da izen ematea guttienez. Musekoa larunbata arratsetan jokatu da eta igandetan partxisekoa.

Hauexek dira bikoteak:



Mus: 1. Marino-Jose; 2. Juan Jesus-Joxelu; 3. Lander-Jose Ramon; 4. Josetxo-Javier; 5. Pedro-Antonio; 6. Vicente-Miguel; 7. Marino-Juan Ramon; 8. Simeon-Eleuterio; 9. Pri-mi-Antonio; 10. Plaxen-Jose M^o; 11. Esteban-Eustakio; 12. Emilio-Eus-takio; 13. Severino-Ramon; 14. Josetxo-Eulogio; 15. Mikel-Iñaki; 16. Javier-Amador; 17. Daniel-Bautista.

Partxis: 1. Morfi-Juan Mari; 2. Iñaki-Juan Miguel; 3. Iñaki-Ramontxo; 4. Korpus-Kontxita; 5. Anuntxi-Tere; 6. Lander-Jose Ramon; 7. Marijo-Viki; 8. Mari-Marijo; 9. M. Luisa-M. Paz; 10. M. Jesus-Ramon; 11. Rafa-Mikel; 12. M. Josefa-Felisa; 13. Severino-Lourdes; 14. Celia-Ana Isabel; 15. Josetxo-Jose Ignacio.

ARANTZA

Giro ederrean ospatu zen Mendi Mutilen Besta

JON LARRETXE

Urtero ohi denez, aurtengoan ere, Errege egunean, ospatu zuten arantzatar mendi mutilek euren besta.

Besta honek tradizio haundia du Arantzatan eta duela hogeit hamar urtetik honat ospatzen da.

Mendi mutilak 9 hilabete gogor oihanean lanean pasatu ondoren, egun hau dibertsio eta elkargiro atsegin-ean ospatzen dute. Momentu honetan Frantziako oihanetara lanera joaten direnak gutti badira ere, 110etara ailegatu izan dira denbora batzutan. Herriar gehienak hurbiltzen dira



besta honetara eta giro atsegina sortzen da.

Aurtengoan, goizez, Donato Larretxeak aizkoraz eta Errandonea anaiak arpanean erakustaldi ederra eskeini zuten. Gero, Lizaso eta Lazkano bertsolariak alaiturik, herribazkaria egin zen Aterpe Erretegian.

Antzerki emanaldiak

Urte berri egunez, eskolako haurrak antzerki emanaldi ederrak es-

keini zizkiguten. Jende aunitz azaldu zen ikustera eta erran behar, irri eta algara ederrak atera genituela antzeslan umoretsuari esker.

Subasta edo enkante publikoak


Eskola eta medikuaren kontsulta garbitzeko zerbitzua, subasta publikora ateratzea erabaki du Arantzako Udalak. Aldi berean, *Apittoa* eremuaren garbitzea, zulatzea, ixtea eta landaketa egitea atera da ere subastara.

Interesatuak, Herriko Etxean aurkituko dituzte xehetasun gehiago.

Igerilekua eta aldagelak egin gogo dira

Igerileku bat egiteko dauden aukerak begiratzen ari da Udala. Haudela eta, eraikuntza honen kostua zenbateko izanen litzatekeen jakin nahian eta Gobernuari laguntza eskatzeko asmoz, memoria eta aurrekontua eskatu ditu.

DONEZTEBE



Elgorriko zubiaren moldatzeak ezkonformidade ugari azalerazi ditu.

Euskara Batzordea eratzea beharrezkoa ikusten da

TXEMA ALDABE

Malerreka eskualdeko euskararen normalizaziorako prozesuan eman behar beharrezko lehendabiziko pausoa Euskara Batzorde bat eratzea izanen litzateke. Horrela dio Ines Gerekak, eskualde honetako euskara Zerbitzuaz arduratzen denak.

Bi hilabetez Euskara Zerbitzuan lanean aritu eta 1989ko kontratua akitu ondoren, Ines Gerekak atera ditu zenbait ondorio. Horietako bat, gure eskualdean euskararekiko inongo azpiegiturarik ez dagoela. Gauzak horrela, Euskara Batzorde baten erakuntza lehenbailehen egin behar da. Proposamen hau egingen da Hilbeltzaren 19 Doneztebeko Herriko Etxean eskualde guziko Udalek egingen duten bileran. Bertan erabakiko da ere,

batzorde hau, euskara alorrean lanean ari diren erakunde edota elkarteengana zabaldu behar den.

Bertzalde arestian aipatutako bilera horretan azalduko du ere 1990 urterako programa. Ikerketa Linguistiko bat egitea izanen litzateke helburuetarik bat.

Ikastaro trinkoak antolatu eta erroto-loak euskaratu

1990eko programan badira bertze zenbait proposamen ere. Hoiatariko bat, ikastaro trinkoak eta maila ezberdinetako klaseak antolatzea, euskaldunak alfabetatzeko edota espezializatzeko eta erdaldunak euskalduntzeko.

Programa honen barruan egin beharreko bertze gauzak, hauexek izanen lirateke: Koordinatu eta diru laguntzak ematea Malerreko Euskaltegiari, gaur egun euskaraz irakatsi edota euskaraz

alfabetatzeko dagoen erakunde bakarra. Tipi-ttapa aldizkariari, gure herrietako berriak euskara hutsean idatzirik azaltzen dituen aldizkariari eta baita euskara alorrean lanean ari diren elkarte edota erakunde laguntza eskeintzea.

Herriz-herri euskararekiko beharrak eta proposamenak zeintzu diren jaso eta ahal den neurrian gauzatu. Itzulpen zerbitzu bat eratu, Bortzirietan eta Malerrekan itzultzaile bat kontratatu hasiera batean. Ekitaldiak euskaraz antolatu: hitzaldi eta mahai inguruak, jaialdiak, erakusketak e.a.

Ines Gerekaren ustez, aipatutako programa hau burutu ahal izateko, Malerreko Euskara Zerbitzurako bigarren pertsona baten kontratazioa proposatuko du.

■ Gizarte laguntzaile bat ari da lanean Malerrekan

Uztailaren 3an hasi zen lanean eta bere eginkizuna arlo hauetara finkatu da:

- Edozein gai soziali buruz informatzeko.
- Pentsioak eta laguntzak bideratzeko aholkuak ematea.
- Herbulduentzako laguntzak eskatzea, erientzako aulkiak, muletak...
- Zaharrentzat zahar-etxetan lekua bilatzea.

Doneztebeko Osasun Zentruan egoten da eta bakoitzaren etxera joatea nahi izanez gero bertako telefonora dei daitake: 594300, Tere edo Begoñaz galdetuz. Zerbitzua debalde da.

Bakarrik eta ezinduak dauden zaharrei etxeko lanak egiten laguntzeko zerbitzua ere jarri nahi omen dute martxotik aintzineria.

Heldu dira inauteriak

PATXI PETRIRENA

Inguru honetako lehenbizikoak izanen dira aurten Sunbillako inauteriak, ia ia aldi berean egingen diren Ituren eta Zubietakoak baino egun bat lehenago hasiko bait dira, Urtarrilaren 26an hain zuzen ere, ortzitala. Egun honetan, ohitura den bezala, gazteak baserriz baserri ibiliko dira alaitasuna eta besta giroa hedatuz, puxkak biltzen dituzten bitartean. Larunbatean, Urtarrilak 27, herriko etxeetan egingen dute ibilera, eta igandea izanen da inauteri hauek borobilduko dituen eguna, egunik haundiena bertalde ikuskizun aldetik.

Aintzineko urteetan gertatu den bezala, guttika guttika loalditik atez

raz joan diren inauteriek jende multzoa ekarriko dute ondoko herrietatik, batez ere igande goizeko karrozak ikustera, azken urteotan ikusgarriak eta xelebreak agertu bait dira. Dagoeneko prest egonen dira beharbada, baina ongi gordeak dudarik gabe. Bete betean sarturik bizitzen dituztenak bezalaxe egonen dira eguna iristeko zai bazterretik begira gozatu gogo dutenak. Eguerdiko hamabietan hasiko da desfilea.

Karrozen ondotik frontoian izanen da ikuskizuna, kirol mailakoa oraingoan. Horrelako okasioetan ez da kanpotik inor ekarri beharrik, bertakoak ariko dira. Aizkoran, Felix Etxeberria -Josetxo Mitxelena eta Juan Joxe Mitxelena-Joxe Etxeberria bikoteak buruz buru, eta txinga

eramaten bertze batzuk. Herriko Dantzari Ttikiek ere egingen dute beren saiotxoa. Bertze aldetik, zerria eta bildotsaren zozketa orduan egingen da.

Dena burutzeko, Ulibeltzak elkartean bazkari ederra egingen da eta parte hartu nahi duenak izena eman dezake bertan. Giroa ziurtatua dago, bertsolariak eta guzi.

Zer gehiago aurrera daiteke Sunbillako inauteriez. Gauza bakar bat: onak izanen direla.

Amerikanoen bisita

Eguberri pasa hemen izan ditugu Joxe Antonio Zugarramurdi, Txan gonekoa eta Patxikito Iriarte, Arretxenbordakoa. Aldizkari hau zuen eskutara iritsi orduko beren itzulbidea hartua izanen dute.

ITUREN

Ihauterietako egitaraua finkatuta dago

IBAN ISASI

Aurreko alean iragartzen genuen bezala, Errege egunaren bezperan, Ituren, Aurtitz eta Zubietako joaldunak Iturenen bildu ziren egitaraua eta egunak finkatzeko. Hauexek izanen dira: 27, 28, 29, 30 eta 31a urtarrilari dagokionez eta otsailaren 3a, larunbata.

Urtero ohi den bezala, ostegunean iturendarrek aretzia hilko dute eta larunbatean 27, afaria izango da musika eta guzti. Igandean 28, Iturengo joaldunek herriari bira emanen diote eta bazkari-afariaz aparte arratsaldean musika izanen da. Aurtitzen ihauteri hauetako otorduetarako bildotsak hilko dituzte eta Iture-

nen bezala bazkari-afariak musikaz alaituak egonen dira.

Astelehenean Zubietar eta Aurtiztarrak Iturenera etorriko dira eta asteartean ordea, Iturendar eta Aurtiztarrak Zubietara joanen dira.

Asteazkenean bai Iturenen eta bai Aurtitzen etxez-etxe arraultze eta diru eskea egingen da, Otsailaren 3an, Zahar eta Kontuen egunari bidea emanaz. Astelehen, astearte eta asteazken arratsalde musika izanen da eta larunbatean aldiz, arratsalde eta gauzez. Bukatzeko, aipatu besterik ez, ihauteri hauetako hainbat ekitaldi, Udaletxeko *Erabilera Ugari-rako* gela bezala ezagutzen den horretan izanen direla eta Aurtitzen, moldatu berria den Elkartean.



Bazkaria zaharren eguna ospatzeko

Urtero bezala, Errege Egunean Aurtitzen bazkaria egin zuten Iturengo Udalak gonbidaturik. Bazkari honetan 33 lagun bildu ziren eta ederki bazkaldu ondoren dantzaldia izan zuten.

Iaz Iturengo Ostatuan izan bazen ere, aurtén, Aurtizko ostatuan

egin zen eta aurtengoarekin, 3garren urtea da besta hau egiten dela.

Argi-indar linea berria Amezti alderako

Amezti behi granja haundi bat egin behar dutela eta, argi-indar linea berria hedatzekotan omen daude. Dirudienez, orain artekoak potentzia gutxiegi ematen du dau den beharrak kontutan harturik.

Linea jartzeko lanak auzokoen gain egonen dira eta ardura berriz Iberdueroren esku geldituko da.

Dena den, guzti hori egitea kostako denaren %50a, Europako Ekonomi Elkartek luzatuko die; %25a Iberduerok eta falta bertze %25a auzokoen bizkar geldituko da.

ZUBIETA



Hainbeste kostatako ETB gabe gelditu gara

JUAINAS

Gertatu zenean teknikoak behingoan moldatzen arituko zela pentsatu nuen, baina ez da horrela izan behar. Diotenez, antena malamaneran kendua omen dago, Zubietakoa, justuki!

Horrekin nork lortzen duen benefizioa ez dut ulertzen, etsaieraren harrotasunak ez bada. Orain beretik hasi beharko dugu dena... bilerak, Mankomunitatea martxan paratu... bitartean gabe.

Errota nahi duenak 50.000 ptako errenta ordaindu beharko

Errotakoak ari dira, ari, ehotuz ala ehotu gabe, dirua eskuratu nahirik. Orain 50.000 ptako errenta nahi omen dute; momentuz etxe-konponketan sosik bota gabe. Sartu behar dutenentzat ongi etorria.

Ez du, nere ustez, herriko inork hartuko!

Fiesta ederra errege bezperan botatakoa

Errege bezperan ederra bota genuen, batzuk bestek baino ederragoa harrapatzen zutela! Oraingo honetan trikitilari eta bertsolariak izan genituen, Malerrekako Euskara Zerbitzuak ekarriak. Afari, mozkorkeri, joaldunkeri... eta Itunera. Inotik prestatzen ari omen dira batzu... Haizkoldegiak? Jo eta ke!

ZUGARRAMURDI

Lezeen erabileraren eta Eskola eta mediku kontsultaren subastak badute jaberik

KORO IRAZOKI

Joan den aldian aipatutako lezearen subasta eta baita eskola eta mediku kontsultaren garbitasunarakoz egindako enkanteak ez du lehengotik aldaketarik ekarri. Joan den urtean ari ziren berak gelditu dire aurtien ere; hau da, Maritxu Sansiñena garbitasunerako eta Anita Nemours lezearen erabilerarako.

Mus Txapelketa azkarra

Joan den ortziralean, abenduaren 22an, Alzatenea ostatuan Mus Txapelketa bat izan genuen: Zortzirehun pza./bikoteko ordainduta 9,30etan 16 bikote jokoan hasi ziren. Azkenen finalerako hauek gelditu ziren: Xota-Pedro eta Margari-Joxemari izan ziren irabazleak (bildots eder bat



haiendakoz). Xota eta Pedro txanpain eta patxaran botoilekin konformatu ziren.

Erran behar da irabazle hauek bazutela beren *berezitasuna*: Margari txapelketako neska bakarra zen eta Joxemari denen *atatxi* (zaharrena).

Eskolako zozketaren zenbakia

Urtero egiten den bezala, Gurasoen Elkartek Eguberrietako Saski baten zozketa egin du. Zenbaki saritua hau izan da: 1.646 Zorionak suertea izan duen hari!!

Eguberriak

Igande arratsalde goxo batean geundela, ia-ia udaberrian ginela ustez eta, begira nundik hurbiltzen diren mutiko-neska koxkor pila bat kanta-ta-kantari, beren kapelu eta soin luzeekin, eta hantxe denen gainetik gizon tripaundi bat kadira batean ederki jarrita garraiatzen. Horrelaxe jakin genuen Eguberriak ailegatzaren zirela, beti bezala Olentzero gure karriketara ailegatzaren denean.

BAZTAN



Erratzuko ur-depositoa egiteko subasta ez zuen inork hartu

J.M.I.

Gorostapolo auzoan egin asmo den ur-depositoa egiteko subasta deialdiak, ez zuen eragilerik hatzeman. Dirudieenez, ur-depositoa eraikitzeke ez zen inolako eskeintzarik aurkeztu eta ondorioz, Baztango Udalak hutsik utzi zuen aipatutako subasta edo enkantea. Orain, beti ere Baztango Udalak erabakitakoaren arabera, premiazko obra izendatzea eta eraikuntza zuzenean adjudikatzea deliberatu zuen, horretarako, hiru aurrekontu eskatuko direlarik.



Iñakik marka berria hausteko prest

J.M.I.

Errege egunean, beste aldi batez, Iñaki Perurenak marka berri bat bete zuen 313 kiloko harria leporatuz. Badirudi, gure indartsu honen grina eta kemenak ez duela oraindik behintzat mugarik aurkitu; eta datorren hilean, Donostiako Anoetan marka berri bat ezartzeko saiakera egingen duela 314 kiloko harriarekin. Aurrera Iñaki eta icecup!

Uraren arazoa ez da larriegia

Orain berriki hartu diren neurriei esker, antza denez, ur-eskasiaren arazoak ez du beldurtzeko arrazoirik ematen eta murrizketa orduetatik kanpo, etxe guztietan, edozein dela altuera, urez hornituak egonen dira. Dena den, arazoak okerrera joko balu, balegoke moldatzerik Txaragorrikoa erantsiz oraingo ur-depositoa-ri.

Udal azpi-egituraren Hirurteko Plangintza

KORO ETXEBERRIA

Hirurteko Plan hau iaz hasia da eta 1989-1991 urteak osatzen dute. Aurreko urtean baserrietako elektrifikazio lanak hasiak dira. Aurten eta laister ur-kaptazioen hobekuntza lanak hastekoak dira, nahiz eta hau ere 1989ko urtean sartua egon. Berritze honen kostua 7.834.905 pezetakoa da. Nafarroako Gobernuak 6.010.742 pzta. finantziatuko du. Gainerako guzia Udalak ordaindu beharko duelarik. Aurtengo plangintzan sartua dago ere kaleetako zoladura. Datorren urtean Espide aldeko pista eta Artikutzakoa kon-

ponduko dira. Honekin bukatuko dira Plan Trienal delakoaren behar nagusienak.

Antzerki talde bat osatu da gure herrian

Une honetan argumentua eta gidoia prestatzen ari dira, baina lan honetaz aparte arduradunek diotenez obra hau aurrera eramateko jendea behar da agertokia dekoratzeko eta margotzeko. Lan hauek herriko zinemaren egiten dira astean zehar. Bilera orokorrak berriz, ostirala edo larunbatetan. Zu, prest bazaude talde honi laguntzeko, ongi etorria.

Arau subsidiarioak

Joan den abuztuan arau subsidiarioei behin behineko onespena eman zion Udal Gorporazioak; onartu ziren alegazio guztiak barruan zituelarik.

Lehenbailehen arkitektuak akordio honen ratifikazioak egingo ditu bertan aurkitzen diren akatsak zuzentzeko. Prozesu honek aurrera ateratzeko behar dituen zuzenketak argitu ondoren, Nafarroako Gobernuan aurkeztuko dira. Azkenik, Diputazioa izanen da behin betiko onespena emango duena.

Bertsularien Eguna otsailaren 11an ospatuko da

MIXEL

Azkeneko urte hauetan ohidura den bezala, aurten berriz Olain El-karteak antolatzen du Bertsularien Eguna ifarraldeko bertso eskolaren alde otsailaren 11an.

Egun horren hasteko izanen da meza 10ak eta erditan bertsolariekin, ondotik aperitifa eta bazkaria.

Saioa arratsaldeko 4etan hasiko da eta hor parte hartuko dute Donostian atera ziren 3 lehenak: Lopategi, Eguzkitze eta Lizaso, eta ifarraldek Arzallus, Ezponda, Mendiburu eta Xanpun; Alkat gai emaile izanen delarik.

Ifarraldeko Bertso Eskolako gazteak entzuteko parada ere izanen dugu.

Aintzineko ortziraletik hasita, hiru egunez, Sarako Herriko Etxea zabalik egonen da "Bertsularitza" deitzen den erakusketa bat eskeintzeko.

Asmoa dugu zuen laguntza izanen dugula denok elkartuz.

Sarako Itzulia

Oharra: Ekainaren 17an parte hartu ahalko duzue "Sarako Itzulia" hortan bigarren aldikotz.

Ondotik hemen hatzemanen dituzue xehetasun gehiago.



Ernest Alkat izanen da gai-emailea.

EZKONTZAK

Luis Fernando Etxeberria-Inma Lopategi (Goizuetarra eta Hondarribitarra) abenduaren 30ean.

JAIoTZAK

Xabier Etxarte Mikelestorena, Etxalarkoa, azaroaren 19an.

Imanol Goienetxe Iturbide, Igantzikoa, hilbeltzaren 7an.

Naiara Lizasoain Zabaleta, Goizuetakoa.

Eneritz Loiarte Zubieta, Goizuetakoa.

Ander Bertiz Grazena, Doneztebekoa, abenduaren 29an.

Iñigo Ostiz Escalada, Doneztebekoa, hilbeltzaren 2an.

Beñat Iturria Cuartero, Bera-tarra, abenduaren 23an.

Tatiana Rubio Amede, Endaralatsakoa, abenduaren 30ean.

HERIOTZAK

Margarita Bertiz Adot, Sunbilla-koa, Urtarrilaren 1ean, 54 urte.

Miguel Iriarte Huarte, Bera-koa, urtarrilaren 3an, 59 urte.

Josefa Juanena Saldias, Oiz-koa, hilbeltzaren 6an, 86 urte.

Patricio Macazaga Macazaga, Etxalarkoa, urtarilaren 10ean, 59 urte.


Irene Pery, Zugarramurdikoa, abenduaren 18an, 85 urte.

Jose Antonio Taberna Txopere-na, Igantzikoa, abenduaren 29an.

Maria Ramona Zabaleta Azpiroz, Leitzakoa, abenduaren 30ean, 61 urte.

Maria Zulaika Etxandi, Ituren-go, abenduaren 24ean, 92 urte.

Iñotiak: egunerokotasuna astintzeko okasio ederra



Hemen dira berriro! Errege bezperako joaldunak egin zuten berea.. ederki lagundurik... San Antonak bertan daude!

-Ring, Ring! -Telefonoa-

-Bai, nor da?

-Oiga! Es Zubieta? Mire, le llamo de Radio Pokamartxa, de Pamplona...

-Zer?

-Si oiga, de aquí, de Pamplona. Perdona la molestia pero quisieramos saber, para informar a nuestros oyentes, qué programa tienen para estos carnavales.

-¿Programa? Pues, lo de siempre! Lunes, ir a Ituren; Martes vienen los de Ituren y ya está.

-Si, oiga, pero.../Klang!

Hor konpon bakoitza bere buaruarekin! Nik neuk, agudo moztea nahiago dut zeren, gero, begiratzten baldin badiezu, betiko galderak bait datoz:

-Oiga! ¿Y eso de los cencerros qué significa?

-¿Por que adelantan Vds. los carnavales?

-¿Es verdad que existe competencia entre Ituren y Zubieta?

-¿Saldrán chicas tocando los cencerros?

Ez dute aurreko urtekoa irakurtzen, ezta euskaraz galdetzen ere gehienek, eta deskuidatuz gero... horra hor mardulena:

-Si, si, pero ¿Qué significado tiene para Vds. el carnaval?

Ongi pasatzeari arrazoren bat bilatu behar bagenu bezala!

Iñotik, Zer dira? Negu erdian seriotasunaren aurkako jaia; fiesta ero bat, fiesta guztien antzera; egunerokotasunatik ateratzeko aizaki bat; negua joango dela oroitarazteko; guzti hori eta aunitz gehiago: sentimendu bat! Horra! Horixe litzateke iñotia! Eguneroko erritmoari astindu eder-galan-taren bat edo bi eman ez bizi gogoia erakusteko okasioa.

Gazteak bilduko dira. Bilduko

dira adintuak. Fiesta gogo dutenek aurkituko dute non eta nola. Baita haserre gogoia dutenek ere. Indar eta ahuleria erakutsiko dugu guztiok eta, seguraski, iñoti aurretik baina lagunagoak bukatuko dugu, behar bada! Edo etsaiagoak.

Zeren, zer dira iñotik? Zer dira Fiastak? Elkarrekiko harremanak sendotzeko giroa. Gozoak ala itsusiak, bakoitzaren aukeran!

Mundua hankaz gora jartzen baduzu? Egon dadila!

Ni aurten etxean geldituko naiz.

Ongi pasa guztiok!

Zubietan, Aurtizan eta Itunaran orain.

Beste herrietan, gerogokoetan.

Aholkurik onartzen dituzu? Arropekin ez sobera kezkatu. Mozorrotu bai, lasai ederrean!

JUAINAS

Mariano Izeta:

Duela 40 urte baino euskara gehiago entzuten da Elizondoko karriketan



Mariano Izeta Elizalde 1915.eko uztailaren 14ean jaio zen Elizondon. Bere aita zarauzta-rra zen eta bere ama berriz elizondokoa, Txokoton jaioa. Zortzi anai-arrebetan zaharrena dugu eta Elizondon bizi da. Anai batekin batera aitaren ofizioari jarraitu dio duten erloju-denda batetan lan eginez, nahiz eta orain jubilatua egon. Mariano tikitatik euskal kulturaren munduan sartua ibili da buru-belarri. Bere burua idazle bezala agertu arren, inguru honetako ohitura zaharren biltzaile eta ikertzaile ere badela erran daiteke, bertsolaritza munduan ere lan ugari egin duelarik. Gai hauen inguruan zuzendu dizkiogu gure galderak.

**-Zertaz joko zenuke zeure bu-
rria, euskal kulturaren ikertzaile
bezala edo idazle bezala?**

Ni batez ere euskaltzalea naiz, nire aita eta amarengandik euskal es-
piritua sariua dut barnean. Euskal
zaletasun hori gerra aintzinetik area-
gotu zen niregan eskutitz batzuk eta
idazten hasi ginen eta ikastola bat ere
bagenuen hemen Elizondon, 1935.
urtean sortua izan zena. Orduan ere
euskarak bazituen etsaiak eta itxie-
raztea abudo erdietsi zuten. Fronte
Popularrak Espainian hauteskundeak
irabazi zutenean, 1936ean, berriz
berehala ireki zen. Baina guti iraun
zuen gure zorionak. Gerra madarika-
tu hura etorri zen eta berekin erreke-
tak. Ikastolako liburu guztiak erre
zituzten eta bertan *Cuartel de Pela-
yos* deitu zutena jarri zuten. Horrek
hemengo euskal kulturaren mugi-
mendu guzia geldiarazi zuen, gutie-
nez hamar urterakoz.

**-Noiztik edo nola sortu zitzai-
zun idazteko zaletasuna?**

1957. urtean hasi nintzen Baztan-
go kontuak eta idazten. Ez nintzen
inongo eskolara joan, hasieran ez
nuen sobera ongi idazten baina pix-
kanaka-pixkanaka lortu nuen erraz-
tasuna. 1960.ean Baionako *Herria*
astekarira hasi nintzen nere izkribuak
igortzen. Gero liburuak eta horrela
hasi nintzen irakurtzen eta neronek
ere idatzi nuen nobela ttipi bat, "*Dirua*



*Baztan aldeko kondairak kontatzen dira
nobela honetan.*

galgarri" deitu nion. 1976an, "*Ne-
garrez sortu nintzan*" nobela idatzi
nuen baina 1982a arte ez zidaten ar-
gitaratu. Nafarroako zenbait egunka-
rik ateratzen dituzten euskarazko
gehigarrietan ere idazten dut.

**-Lehen aipatu dugu kultur iker-
ketan ere aritzen zarela. Laburbil-
duko al zeniguke egin dituzun edo
egiten ari zaren lana?**

Baztango hiztegi bat egiten ari
naiz, bi mila hitz bilduak ditut eta
lehenengo partea Euskaltzaindiak
argitaratu zautan baina orain bertze
bat osatuagoa argitaratzeko asmotan
nabil.

Hortaz gainera esaera zaharrak
biltzen ari naiz, *erranahiruak*, Baz-
tanen erraiten den bezala, baditut
berrehun eta gehiago bilduak.

**-Badakigu Nafarroako bertso-
larien Txapelketetako epai-ma-
haitan ibilia zarela. Zer errango**

**zeniguke Nafarroako bertsolari-
tzaz?**

Bai, ni bertsozale amorratua naiz.
Nafarroako lehendabiziko Bertsola-
ri Txapelketa Elizondon antolatu
genuen, Antxitoneko trinketean,
gerra aintzinean 1936. urtean. 1960.
urteaz geroztik bertso saioak antola-
tzen genituen hemen, Antxitonean,
eta jende aunitz biltzen zen. Orain
berriki, duela urte guti, erran duzen
bezala, Nafarroako Bertsolarien Txa-
pelketetako epai-mahaian ere egona
naiz.

**-Eta azkenik, hemen Baztanen,
nola ikusten duzu euskal zaletasu-
na eta euskararen etorkizuna?**

Baztanen euskal zaletasun gehie-
girik ez dut ikusten, baina zerbait
irauten du. Ikastolan haur aunitz dago
eta erran dezaket orain Elizondoko
karriketan, duela 40 urte baino eus-
kara gehiago entzuten dela. Euskal
kultura aintzinerat doaiela uste dut
eta euskaraz dakigunak aunitz gare-
la, baina erabilera ez da sendotzen
eta hizkuntza bat ez bada erabiltzen
hiltzen joaten da.

Hauek eta bertze zenbait eritzi in-
teresgarri kontatu zizkigun Maria-
nok, baina guk betiko leloa aipatu
beharra daukagu; ez dugula lekuri-
dena kontatzeko. Beraz, mila esker
eta bertze batean beharko du izan.

PELLO ASTIZ

ETXEBIZITZAK

-**Lesaka.** Pisua salgai. Bittiria kalea-Gurutze etxea 2.C

-**Bera.** Pisua salgai. Eztegar ibilbidea 19, 2.A Tfnoa: 630455

-**Bera.** Pisua salgai. Eztegar ibilbidea 17, 4.D Tfnoa: 630964/257802

-**Bera.** Pisua salgai. Itzean. Tfnoa: 630743

-**Bera.** Baserri bat erosi edo alokatu nahi dugu. Argibideak Larrutxuki 1. Tfnoa: 630532

-**Lesaka.** Pisu bat alokatu nahi dugu Lesakan. Erreferentzi onekoak izan arren, kale gorrian gaude. Deitu tfno. honetara: 637796

LANA

-**Frantzes klaseak** ematen dira. Maila guztiak. Tfnoa: 637969 Lesaka.

-**EGB klaseak** ematen dira. Tfnoa: 630146 Bera.

-**Gitarra, baxua eta bateria klaseak** ematen dira. Interesatuak hurbil zaitezte Laia musika dendara. Tfnoa: 631059

SALEROSKETAK

-**Ordenadore** polit eta kottor bat saltzen da. Amstrad markakoa da eta testuak prozesatzeko, kontabilitatea eramateko eta bertze 2 programa ere baditu. Deitu 631188 telefonora.

-**Idazmakina elektronikoa** saltzen da. CANON markakoa. Interesatzen bazaizu deitu 631188 telefonora.

-**Pentax argazki makina** batenizat, bigarren eskuko objetiboak nahi ditugu. 28-80mmko bat bazenu oraindik hobeki. Tfnoa: 631188

-**Kanpin denda eder** bat salduko nuke, merke, konbenientziako prezioan. Interes dutenentzat Zubietan bizi naiz, Ibarrenea etxean. Asteburutan fijo, astegunetan atsaldez eta gauez.

DENETARIK

-**Erretratuak** marrazten ditut. Galdetu Xut arropa dendan. Tfnoa: 637410 Lesaka.

-**Negozioa ixteagatik** likidazio osoa egiten ari gara. "Kirolak" denda, Lesaka.

-**Kordioi zahar** baten bila nabil, parranda egiteko, dohain edo merke. Norbaitek edukiz gero Leitzako Euskaltegi "Ikastari"ra dei dezala. Mila esker. Fraz.

HARREMANAK

-**Lesakako Euskaltegi**ko hobe-kuntza mailakoei: Gustatuko litzaiguke sagardotegi batera zuekin joatea urtarrilaren 25ean. Arazo tiki bat dugu: Ez dugu elkar ezagutzen, horregatik, trajez jantzita etor zaitezte, tipi-ttapa bat besapean duzuela. Gu, bizkar gainean mantela eta belarrietan belarrietako luze batzurekin joan gara. Mesedez, erantzun lehenbailehen zenbat etorriko zareten erranez. Ikusiko duzue ze jende jatorra eta ligatzeko aukera izanen dugun. **Berako Euskaltegi**ko "Auxkalo maila"

-Ea animatzen zareten berriro neske arteko futbol talde bat antolatzen edo bestela futbito taldea. Aurrrera neskak! **Fans** edo **begirale** amorratu bat.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE-KOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA

Testua: _____

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK _____
 HELBIDEA _____
 HERRIA _____

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188


Partaidetza ugaria Baztandarren Biltzarrak antolatu hamabortzaldian

Amaitu da dagoeneko hamabortzaldi kulturala eta lehenengo alean emandakoaz gainera, hauexek izan dira emaitzak:

* Haurrentzako egindako herrikiroletan, gehiengoaren ustearen aurka, ikastolako neskek irabazi zuten. (Partaidetza izan zen, ehundik gora).

* Futbitoan berriz, "Salchichas deportivas" taldeak irabazi zuen infantii mailan, eta alebinetan *Baztango Ikastola* suertatu zen garaile. 130ren bat haurrek hartu zuten parte.

* Iragarritako II. Milla atzeratu behar izan da eguraldi txarra dela medio. Halere, aurrerago burutzeko asmoa da eta erranen denboraz data berriaren berri.



130ren bat haurrek hartu zuten parte

Harrera ezin hobea mendi aldeko I. Futbol Txapelketak

MATTARI ALTZUARTE

Bukatu da Baztan-Leitzaran-Mallerreka eta Bortzirietako lehenengo Futbol Txapelketa. Elizondoko "Ur-txintxa" atera da garaile, finala Baztango beteranoei irabazi zietelarik. Esperientzia positibotzat jo behar da partaidetza ugaria ikusirik. Aipatzeko da, baita ere, Pello Igantzik miña hartu duela txapelketa honetan, hanka hautsia gertatu delarik. Lehenbaila lehen sendatzea opa diogu lerro hauetatik.



Garbi ditzagun mendiak

Nafarroako Gobernuak, mendiko zikinkeria biltzearen luzatzen duen laguntza jaso zuen Malerrekako Kirol Bulegoak. Ehiztariak edonon uzten dituzten zikinkeriak biltzea da honen asmoa.

Horrela, ibilaldi batzu antolatu dira haurrekin; Urrotzen Askalda mendira 10 poltsa zikinkeria eta kartutxo bildu zirelarik.

Sunbillako Ikastolako haurrak, berriz, Zumaleku mendian izan ziren eta 17 poltsa bete zituzten bertan.

Uste dugu helburuak bete direla. Alde batetik haurrak sentsibilizatu eta bertzaldetik ehiztariei zer egin behar duten erakutsi.

Karate eta iraupen soinketa ikastaroak

Datorren urtarilaren 17a arte dago zabalik Eskualdeko Kirol Batzordeak antolatu dituen karate eta iraupen soinketa (gimnasia de mantenimiento) ikastaroetako izena emateko epea. Karatea Bortzirietako haur eta heldu mailako jendeari eta iraupen soinketa berriz, heldu eta jubilatuei zuzenduak dira. Ariketa guztiak Berako Lanbide Eskolan egingen dira eta bertan parte hartu nahi duenak 630005 (Berako Herriko Etxea) eta 637005 (Lesakakoa) telefono zenbakietara deitu beharko du.

Malerrekako Pilota Eskolak lehen urtea bete du

MIKEL IBARROLA

Urte bat pasa da Malerrekako pilota eskola sortu zenetik. Berau, 20ren bat lagunekin hasi bazen ere lanean, dagoeneko 60 pilotaritik gora biltzen dira bertara. Astean bi egune-

tan egiten dituzte prestaketa lanak; astelehena eta ortzegunean. Martin Beginok egiten ditu monitore lanak eta Mikel Ibarrola, kirol koordinatzailea, arduratzen da prestaketa fisikoaz. Eskola honen asmoa, aurrerago pilota txapelketa antolatzea da.

I."Mountain Bike" Bilkura Beran

ROMAN HARRIBILAGA

Datorren igandean, urtarrilak 14, Berako Udalerrian, Gure Txokoa Elkarteko Txirrindularitza eta Atletismo Sailen antolakuntza, Berako Udala, Lankide Aurrezkia, Larun Mendi Taldea eta DYABortzirietako en laguntza eta Eskualdeko Kirol Batzorde, LAIZ Ekoizpenak, Miguel Txarandaka lantegia, KAS Edariak, Errotazar Harategia, Jose Luis eta Bautista Telletxea Banaketak eta Pasai San Pedroko GOOD YEAR Gurpilak-en babesa I. "Mountain Bike" Bilkura garatuko da.

Kirol dema hau ez da lehiagarri eta bi zirkuito izanen ditu. 26,9 Kmkoa bata eta 12,4koa bertzea.

Luzeenak honako ibilbide hau beteko du: Bera (Jamotenea aurretik), Irazokienea, Sarrailla, Etxeberriakoborda, Elizalde eta Gorria Bentak (Ibardin), Usategieta, Landagaita, Gondendiaga, Lizuniaga Gaina, Tiro Zelaia, Idoia alderdia, Larretagaina (Sta. Barbara) eta Bera herria (Jamotenea).

Laburrenak berriz: Bera, Lizuniaga Gaina, Idoia alderdia, Larretagaina eta Berako herria.

Bietan irteera goizeko 9,30etan izanen da. Izen emateak ordu bat lehenago, 8,30etan, alegia, egingen dira 300pzta. ordainduz. Partaide bakoitzari zorro bat emanen zaio oparizat. Ondoren, zizka-mizkak izanen dira guztientzat eta opari zozketa burutuko da.

Horoskopoa

Ia egunkari eta aldizkari guztietan badago atal bat titulu honekin, 12 zeinuendako kontseilu edo predikzioen llabur batzuekin.

irakurri ondoren badirudi 12 pertsonalitate bertzerik ez direla. Bainan denbora berean ohar-tuko gara aski gauza orokorrak edo axalekoak erraiten dituela. Eta bertze aldizkariaren bat ikusten badugu, berehala harrapatuko ditugu kontraesanak.

Ni astrologi honen kontra nago. Gisa hone-tako argitarapen bat ongi egiteko hagitx lan luze eta sakona egin behar da.

Astrologiaz dagoen interesa horri esker orrialde bat betetzen dute baina egiazko astrologiari mesede exkasa egiten dio. Zerbategatik jartzen dute horoskopoa umore orrialdetan.

* **LIBRA:** asko ligatuko duzue... saiatzen bazarete.

* **CANCER:** eskolan lan gehiago egin beharko duzu aprobatekotan.

Zeinuak

Jaio egunak erabakitzen du zein zenutakoak garen, eta exenplu aunitzetan ikus dezakegu zeinu bakoitzeko ezaugarri positiboak nola negatiboak. Honek sinesterazten ahal gaitu 12 arketipo berezi bertzerik ez daudela, eta afera hau ez da horren sinplea. Egia da eguzkia ia beti jaio egunak erabakitako zeinu horretan daukagula, bainan badira ere bertze 9 planeta kontutan eduki beharrek, batez ere ilargia eta astzendentea ere aski inportantea da osasunari dagokionez. *Hauek denak karta zelestean agertzen dira.*

Dakigun bezala, lehen astrologoak Kaldeakoak eta Babiloniakoak izan ziren; hauen ondoren greziarrek bultzada haundia eman zioten, eta gaur egun erabiltzen dugun astrologi hau Grezia eta Erromatik heldu zaigu.

Astrologia ongi ulertzeko jakin behar da lehendik herri hoiek beraien mitologia hor zaukatela. Beraientzat zeinuak ez ziren halako indar, leku edo pertsonalitate berezi eta isolatu batzu, baizik eta 12 urrats edo pausu, pertsonen edo gertakizunen eboluzioan. *"Herkulesen 12 lanak" adibide arrunta da.*

Orduan bada, ez dugu pentsatu behar 12 zeinuak gauza diferenteak direnik eta gutako bakoitza zeinu horietako batekoak garel, 12 zeinuak orokorki pertsonaren bizia edo eboluzioa direla baizik; eta gure eguzkiaren zeinuak adierazten du 12 atal horietatik zein antzesten ahal dugun erretasun gehiagorekin.



Euskara ikasteko eta hobetzeko eskeintza berria egin du Ikastari (ika)-k



Berako Euskaltegia (ika)-ko ikasleak

Ikastari (ika), bertzeak bertze Bortziriak, Malerreka eta Leitzako esparruan euskararen irakaskuntza lanetan ari den koordinakundeak, matrikulatzeko aukera berria eskeintzen du hilabete honetan, horrekin batera dei berezia egingez euskaraz dakien jendea saia dadin irakurtzen eta idazten trebatzen, espreski horretarako planteatzen diren ikastaroetan.

Ildo honetatik, eskualde haue-
tan banatu diren eskutitzetan hona-
ko hau irakur daiteke:

“...zoritxarrez eskola garaian ez
genuen euskaraz ikasteko aukera-
rik izan, ez euskaraz irakurtzen eta

ez idazten ikasteko aukerarik. Ho-
rrexegatik, maiz aurkitzen ahalzara
egoera hauetako batean:

- Seme-alabei eskolako lanetan
lagundu nahi eta ezin.
- Ohar edo nota labur bat idazteko
ere zalantzak dituzu.
- Egunkarian nekez irakurtzen
duzu euskaraz datorrena.
- Euskal Telebistan edo Irratian
arrotz gertatzen zaizkizu zenbait
hitz.
- Zenbait gaitaz euskaraz min-
tzatzea zail egiten zaizu.
- EGA titulua atera nahi zenuke.

Dakiguna guttietsi gabe, gure
gurasoengandik jaso genuen hiz-

kuntza bait da zaindu eta gure
ondorengoei eman behar dieguna,
trebatu egin behar dugu euskaraz
irakurtzen, idazten eta euskara
edozein gauzetarako erabiltzen”...

Epea irekia egonen da urtarrila-
ren 31 arte eta matrikula ordaintze-
ko erreztasunak eskeiniko dira lan-
gabetuentzat. Informaziorako na-
hiz matrikula egiteko telefonoak
honako hauek dituzue:

Leitza-610776; Malerreka-
594687; Bortziriak-637796.

Aipatzekoa da matrikula kan-
paina hau Bortziritan Euskara
Mankomunitatearen babespean
burutu dela.

PATXI PETRIRENA



			Araua	↓		Ileti	↓	☀	↓			Interjekzio
			Sendagilea			Ozta		Kezkatan sartua				
			↓			↓		↓				↓
			Altuegi	↓								
			☀									
			↓									Bizk. omen
☀	↓		Alaitasuri			Angloxa-soien neurri	↓					↓
Lepo, hitz elkar.			Bokala	↓		Bigarren pertsona						
↓			Erran									
↓					Azkenekoa	↓		Ihardun	↓			
					Kalparra			Euskaraz, ohia				
☀	↓				↓			↓				Bokala
Lau + hiru												
↓						Apal	↓					↓
						☀						
Sufrea	↓		Arrantza aparailu	↓		↓		Urrea				☀
Baita ere			☀					Bokala				
↓			↓					↓	Rubidioa	↓		↓
									Uranio			
Ipar. Maiz	Istu	↓			Kontsonantea	↓		Urteko saioa	↓	↓		
	☀				Eztainua			Larru				
↓	↓		Ipar. Begirada	↓	↓			↓	Itsasoa adierazteko aurizkia	↓		
			Emakume izena						Areagotzeko			
☀	↓								↓	Kontsonantea	↓	
Ipar. ordu										Har ezak		
↓					Esku-... txalo	↓				↓		
					Bat							
Anaia, hitz elkar.	↓					Gizon izena	↓					

D a t u c e l a y

SEAT



T. 58 02 25

ELIZONDO

